

21 MARTXOAK

ARRAZAGATIKO DISKRIMINAZIOA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

20 EKAINAK

ERREFUXIATUEN MUNDUKO EGUNA

18 ABENDUAK

ETORKINEN NAZIOARTEKO EGUNA

KULTUREN ARTEKO TOPAKETARAKO BESTE GUNE BATZUK GETXON

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
1go art. : Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, eta duintasun eta eskubide berberak dituzte.
2. art. : Gizaki orori dagozkie Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

1960ko martxoaren 21ean, polizia su egin zuen eta 69 pertsona hil zituen apartaheid-aren legeen kontrako manifestaldi baketsu batean Shaperville-en, Hegoafrikan.

1966an, Nazioarteko Egun hau ezartzean, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak nazioarteko komunitatea premiatu zuen arraza diskriminazio era guztiak ezabatze ahaleginak bikoizteko.

<http://www.un.org/es/events/racialdiscriminationday/>



Getxon...

Alde batetik, kultura askotariko komunitatearen ekarpena hartu nahi da aintzat, kultura, ekonomia eta gizarte garapenean; eta bestetik, arraza diskriminazioari eta xenofobiari aurre egiteko konpromiso sendoa erakutsi nahi da.

Martxoan, urtero egiten dira Aniztasunaren Alde, Diskriminazioaren Kontra Jardunaldiak. Bertan, hitzaldiak, mahai-inguruak talde eztabaidak, zinema, antzerkia, haur eta gazteentzako tailerrak...

Hau guztia Getxoko Etorokinak Plataforma osatzen duten elkarteekin lankidetzan.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
14.1. art. : Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdeetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

Gaur egun, mundu osoko 43 milioi pertsona baino gehiago lekualdatzera behartuak izan dira gatazkengatik, jazarpenengatik eta giza eskubideak urratzeagatik.

<http://www.un.org/es/events/refugeeday/>

Asilo eskubidea, eskubide bereziki ezezaguna da gure inguruan. Gure artean, euren herrialdeetatik ihes egin behar izan zuten gizon eta emakumeak daude, euren arrazagatik, nazionalitateagatik, talde sozial jakin batekoak izateagatik edota euren ideia politikoengatik jazarritakoak.



Getxon...

Egun honen urteroko ospakizuna CEAR Euskadi Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordeak, egiten da.

Uztailaren amaieran hainbat ekintza egiten dira (hitzaldiak, mahai-inguruak, proiektzioak...) **Getxoko herritarrek**, elkarteak eta erakundeak munduko errefuxiatuen errealitatera hurbildu daitezten, bereziki gure herri eta hirietan. Egun honetan, ezinbesteko asilo eskubidea aldarrikatu nahi da, atzeraka doa eta.

 <http://www.cear.es/>

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948)
13.1. art. : Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko.
13.2. art. : Pertsona orok du edozein herrialdeetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

Migrazio internazionalak gizakiari lotuak daude, etengabeak historian, eta ugariak gaur egun.

Garapen sozial, ekonomiko eta kulturalari laguntzen diote bai jatorrizko, bai helmugako herrialdeetan politika egokiz babesten badira.

Egun honetan, 1990eko Konbentzio Internazionalaren berrespena defendatzen da, batez ere langile etorkinen eta euren familien eskubideak, Europar Parlamentuak Europar Batasuneko herrialde kide guztiei eskatzen dien bezala.

<http://www.un.org/es/events/migrantsday/>



Getxon...

Gure ustez, egun esanguratsua da etorkinen oinarrizko eskubideak aitortzeko, edozein herrialdeetan egonda ere.

Urtero, **abenduko bigarren astetik aurrera**, data honen inguruko ekintzak hasten dira.

Hitzaldiak, mahai-inguruak, talde-eztabaida dinamikoak, zinema, antzerkia, haur eta gazteentzako tailerrak...

Hau guztia Getxoko Etorokinak Plataforma osatzen duten elkarteekin lankidetzan.

FOLK GETXO BBK Jaialdia

Kultur Etxeak antolatzen du. **Irailean hasieran egiten da.** Munduko musikak izango dira ardatz nagusia pertsonen eta kulturen arteko topagune natural batean.

Lau egun beste herri, kultura eta bizitza mota batzuk ezagutzeko protagonisten eskutik: pertsonak eta euren espresio artistikoak.

Bisita ezazu **Kulturen arteko Karpa**, etorkinen harrerarako ekintzen berri emateko eta herritarrek sentsibilizatzeko gunea.

Munduko Terrazak, Euskadiko Munduko Medikuek antolatua, etorkinak eta, elkarte mugimenduetan ari diren bertako biztanleak biltzen ditu publikoari zenbait herrialdeetako gastronomia eskaintzeko eta topaketa errazteko.

MUNDUKO PAISIAIK Getxoko Liburutegietan

Liburutegiek ere, euren eduki, material eta programazioak moldatzen dituzte udalerriko dibertsitatearekin bat egiteko.

2009. urtetik, Eusko Jaurlaritzako programa honek liburutegiak sustatzen ditu kultura eta jatorri ezberdinen elkarbizitzan eta integrazioan laguntzeko espazio gisa.

Udal liburutegien ezagutza eta erabilpena sustatzen da Getxon bizi diren atzerritarren artean.

Hala ere, bertako biztanleriari dagokionez, Getxon biltzen diren kultura eta herrien inguruko ezagutza izatea ere sustatzen da.

Parte hartzen duen udal bakoitzak erreferentzi herrialde bat aukeratzen du. Bolibia 2009an, Filipinak 2010ean eta Kolonbia 2011n.

Urtero **urriko bigarren astetik aurrera**, immigrazio arloko elkarteekin antolatutako ekintzetan parte hartzea gonbidatzen zaitugu (hitzaldiak, erakusketak, irakurketa gidak, zinema, festak, tailer gastronomikoak...)

EMAKUMEEN ARTEKO ELKARRIZKETA INTERKULTURALAK

Getxoko emakumeentzako Jabekuntza Eskolak bertako eta kanpoko emakumeen arteko topaketa laguntzen duen gune bat sortu du.

Elkar trukatzeko eta gogoeta ekimen bat da, gizartea ikusteko eta eraikitzeko moduaren inguruko, kontuan izanda errealitate berriak eta elkarlanean eta elkarlaguntzan oinarrituta. **Hilean behin, urritik maiatzera.**

GETXOKO ETORKINAK PLATAFORMA

Getxon diharduten etorkinen elkarteak eta horien laguntza elkarteak biltzen ditu. Ekintza agenda propioa du eta lankidetzara estua du Getxoko Udaleko Immigrazio Unitatearekin.

Biztanleriaren eta kulturen arteko bizikidetzaren inguruko gogoeta foroetan laguntza handia eman dute.

plataformagetxo@hotmail.com



GETXOKO ETORKIN KOLEKTIBOEN OSPAKIZUN SOZIALAK

Getxoko kultura aniztasuna atzerritarren komunitate nagusien ospakizun sozialetan atzematen da.

Ohiko San Patrizioko ospakizun irlandarrari (martxoak 17) beste bi gehitu zaizkio, Filipinetako Independentziarena (1898ko ekainaren 12a) SIKAP eta PAGKAKAISA elkarteek eskutik: eta Boliviako Independentzia (1825eko abuztuaren 6a) ADREBOL-en eskutik.

Kulturen topaketa eta onarpenerako espazioak dira, mundu guztiari irekitakoak.

KULTUREN ARTEKO ELKARBIZITZARAKO PROGRAMA IKASTETXEETAN

BILTZEN Integrazio eta Elkarbizitza Zerbitzuaren eskutik, ikastetxei bereziki zuzendutako programa bat da (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat). Hauek dira programaren helburuak:

- Edozein giza taldek duen aniztasuna ulertzea eta alde ona baloratzea.
- Identifikazio faktoreak kritikoki baloratzea.
- Gizarteak, komunikabideek eta abarrek sortzen dituzten aurreiritziak eta estereotipoak aztertzea.
- Sor daitezkeen gatazkak identifikatzen eta bideratzen jakitea, bereziki kulturen artekoak.

Getxok aktiboki parte hartzen du ZINESKOLA zine eta balioen programan ere.

Facebook

Getxo Kulturen Artean

Getxoko Udaleko Immigrazio Unitatearen ekimenez, kulturen arteko 2.0 elkargunea sortu da Facebook-eko sare sozialean.

Orain Getxok bere aniztasuna onartu eta goratzen du, sare sozialetan ere bai.

Etor zaituz Getxo Kulturen Artean mugimendura eta egin dezagun kulturen artean bizi den hiria.

Proposatu, komentatu, parte hartu, informatu eta informaiezazu!

Jar gaitzazu zure lagunen artean eta interesatzen zaizun informazio guztia jasoko duzu!



BESTE EKINTZA BATZUK

Getxoko Udalak ekintza jakinak aurrera eraman ahal izateko, harremanetan dago hainbat entitate eta elkarte sozialetan: Harresiak Apurtuz EHko Etorrinei Laguntzarako GKEen Kordinadora, CEAR Euskadi, SOS Arrazakeria, Biluts, Bizarra Lepoan, Camino al Barrio-Candela Radio, Centro Arabe Vasco-Libio Alrabetah, Chile Lindo, Egizu, Emigrados Sin Fronteras, Fundación Ellacuría, Kirol Aunitz, Kolektiba Colombia, Munduko Mediakuak, Simulacro Teatro, UK Test, Zabalketa.

العالم بأكمله
bizi ezazu
live it
Jönköping
尽情享受!
vívelo
Träsket!



Getxo Entre Culturas

AGENDA DE LA DIVERSIDAD

www.facebook.com/getxoentreculturas

